

Inbertitzeko printzipioen aitortpena

Euskadiko Pentsioak 2030, BGAE

1.> Aurreikuspen-planaren identifikazio-datuak

>> Aurreikuspen-planaren datuak

- a. Izena** Euskadiko Pentsioak Moderado, BGAE
- b. Sistema** Sistema indibidualako aurreikuspen-plana

>> Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundearen datuak

- a. Izena** Euskadiko Pentsioak, BGAE
- b. BGAE-en erregistroko zenbakia** 106-G
- c. IFZ** V20211702

>> Aurreikuspen-plana sustatu eta gordailatzen duen erakundearen datuak

- a. Izena** Caja Laboral Popular, Coop. de Crédito – Lan Kide Aurrezkia
- a. Helbide soziala** Jose Maria Arizmendiarieta, zk.g. 20500 - Arrasate (Gipuzkoa)
- b. IFZ** F20022109

Planaren inbertsio-orientazioa: Beste batzuk

2.> Inbertitzeko printzipioen aitortpena

- >> **Inbertsio-irizpidea** Planaren aktiboa ohiko bazkideen eta onuradunen mesedetan inbertituko da, hartutako arriskuaren arabera errentagarritasuna lortzeko 2030. urteko epe-mugan. Helburu horrekin, inbertsioa dibertsifikatu egingo da nazioarteko errenta finkoko eta errenta aldarreko aktiboen artean, indarrean dagoen legeriak inbertsioen alorrean ezarritakoa betez. Denborak aurrera egin ahala, arriskuaren profila murriztuz joango da eta, ondorioz, planaren arriskua ere txikitu egingo da, bezeroaren arriskura egokituz.

- >> **Balorazio-irizpidea** Merkatuko prezioaren edo burutzapen-balioaren arabera baloratuko dira, funtsean, Planeko aktiboak, indarreko legediak finkatzen dituen gidalerroei jarraiki.

>> Banaketa estrategikoa

Errenta finkoa: %60 Errenta aldakorra: %40

- >> **Inbertsio-politikaren mugak** Indarreko legediak ezarritako inbertsio-mugak errespetatuko ditu Planak, eta, bereziki, 97/2007 Dekretuaren 11. artikulua. Gehienez ere % 50 inbertituko du errenta aldakorrean. Arauturiko merkatuetan kotizatzen duen enpresa baten aktiboetan ezingo da Planeko aktiboaren % 5 baino gehiago inbertitu, ezta % 10 baino gehiago ere talde bereko enpresa batek jaulkitako aktiboen kasuan. Kotizaziorik gabeko baloreak izanez gero, muga % 2koa eta % 4koa izango da, hurrenez hurren. Arrisku-kapitalen sozietateek edo fondoek jaulkitako baloreetan eta partaidetzetan ezingo da jaulkitako titulu edo zirkulazioko partaidetza guztien balio nominalaren % 20 baino gehiago inbertitu. Europako Esparru Ekonomikoan kokaturiko eta 85/611/CEE Zuzentarauaren arabera koordinaturiko IKE bakar batean edo aktiboen titulazio fondo batean, edo IKE-en 35/2003 Legeak eta gainerako garapen-xedapenek arauturiko finantza-izaerako IKE batean, ezingo da Planeko aktiboaren % 20 baino gehiago inbertitu. Egituraturiko aktiboek maiatzaren 29ko 97/2007 Dekretuaren 11.4 artikulua finkaturiko mugak errespetatu beharko dituzte.

- >> **Aktibo gaiak** Indarreko araudiak une bakoitzean ahalbidetzen dituen aktibo gaietan inbertitu ahal izango du Planak, baina inbertsio-politikaren mugetan ezarritakoa ahaztu gabe. S&Pren eta antzekoen BBB- inbertsio mailako ratingdun jaulkipenak izango dira, funtsean, errenta finkoko aktiboen inbertsioak. Rating txikiagokoak edo ratingik gabekoak, gehienez, aktiboen % 25 izango dira. Egituraturiko aktiboek gutxienez A edo AA ratinga izan beharko dute, horien motaren arabera, indarrean dagoen araudiari jarraiki.

- >> **Deribatuak** Indarreko legediari jarraiki, Panak izango du tresna deribatuetan inbertitzetik, bai estaldurako eragiketetan bai inbertsioak, baina arrisku-profila errespetatuta betiere.

- >> **Arrisku-profila** Aurreikuspen-plan honek arrisku handiko profila du eta inbertsio-profil moderatuentzat eta /edo 2030 inguruan erretiroa hartzeko data izan dezaketen bazkideentzat gomendatuta dago.

- >> **Arriskuak neurtzeko metodoak** Merkatu-arriskua . Errenta Finkoa: Planaren iraupena 15 urte baino gutxiago izango dela egiaztatuko da. Aktiboak ELGaren esparruan jaulkiko dira. Errenta aldakorra. Planak izan ditzakeen gutxieneko eta gehienezko ehunekoak egiaztatzen dira, bai eta legeak ezartzen dituen goiko mugak ere. Funtsean, Internazionala du helburu, nagusiki europarra eta ipamerikarra. Deribatuak: Deribatuak posizioaren delta eskurako posizioari gehitzen zaio, errenta finkoko iraupen-mugak kontrolatzeko. Alderdi kontrarioaren arriskua. Jaulkitzailearen kalitatea aktibo egokien atalean finkatutako mugaren arabera kontrolatzen da. Likidezia-arriskua. Bazkide partaideen mugimenduei erantzuteko beharrezko likidezia egunero kontrolatzen da. Arrisku legalak. Arauak zenbateraino betetzen diren eta Gobernu Batzordeak finkaturiko inbertsio-jarraibideak kontrolatzen dira. Eragiketa-arriskua. Eragiketak eta horien berrespenak kontrolatzeko prozesuak daude, aktiboen prezioak zuzenak direla eta egoki balioetsita daudela ziurtatzeko. Kontabilitate-bateratzeak egunero egiten dira. Euskadiko Kutxak jokabideen barne-araudia eta sistema informatikoetarako kontingentzia-plana ditu. Errenta finkoa:

>> Arriskuen kudeaketa kontrolatzeko prozedurak	Gobernu-batzordeak Planaren arriskuaren kudeaketa kontrolatzeko prozedura bat onartu du. Hori Erakundearen eta Euskadiko Kutxaren artean formalizaturiko kudeaketa-, administrazio- eta gordailu-kontratuan jasotzen da. Kontratu horren arabera, Euskadiko Kutxak aldizka informazioa eman beharko dio aurreikuspeneko erakundeari, horrek kontratuko finantza-aktiboen kudeaketa eta egoera egoki kontrolatu ditzan. Zehazki honako informazio hau emango zaio: ✓ Jardueraren negozio-zifrak. Nagusiki: kudeaturiko ondarearen tamaina, bezero-kopurua, komisioak eta sorturiko emaitzak. ✓ Planen errentagarritasun datuak eta lehiakideekiko egoera. ✓ Zorroren xehetasuna, horien arrisku-parametroena eta horien egoera plan bakoitzerako zehazturiko inbertsio-planekiko egoerarena. ✓ Eredu-zorroak, benetako zorroren emaitzak eta erreferentzia-adierazleen bilakaera. ✓ Eginiko eragiketen eta eguneko balorazioen hileko txosten osoa. Euskadiko Kutxak kudeatzen duen aurreikuspen-plan bakoitzerako eginiko inbertsioak aurreikuspeneko erakundearen gobernu-batzordeak onarturiko Inbertsio Printzipioen Aitorpena egokitu beharko dira. Euskadiko Kutxak bere administrazio- eta kontabilitate-antolakuntzaren esparruan barneko kontrol-prozedurak eduki beharko ditu, kudeatzen dituen aurreikuspen-planen inbertsioak aurreikuspeneko erakundearen gobernu-batzordeak onarturiko erabakiak errespetatuz egiten direla bermatzeko. Gainera, Entitatearentzat lan egiten duten pertsonen funtzionamendu egokia zaindu beharko du, baita informazioari eta parte hartzeari loturiko gaien inguruan bazkideekiko eta onuradunekiko BGAE-en jardura ere.
>> IJA Politika	Euskadiko Pentsioen Gobernu Batzordeak inbertsio jasangarri eta arduratsuari buruzko politika bat onartu du, aktiboak aukeratzean baztertze eta balorazio irizpideak erabiltzean datzana.
>> Urterako errentagarritasun helburua	Planeko erreferentziazko indizeen administrazio-gastuak kenduta ateratzen den errentagarritasuna, errenta finkoan % 60 eta errenta aldakorrean % 40 inbertituta.
>> Likidezia-koefizientea	Planak prestazioei aurre egiteko moduko likidezia-koefizientea izango du. Koefiziente hori ageriko gordailuetan eta hiru hiletik beherako mugaeguna duten diru-merkatuko aktiboetan egongo da, funtsean.